



Stop Kaleratzeak plataformak adierazi dutenez, «etxebizitzaren salerosketa unerik gorenean zegoenean Kutxarekin eginiko ia hipoteka guztiak dute IRPH indizea». HITZA

Hipoteken indizeen auzia

Stop Kaleratzeak plataformak IRPH indizea behin betiko desagertu eta Euriborra aplikatzen has daitezela eskatu du

Milaka familiarentzat 300-400 euro bitarteko murriztea eragingo lukeela diote

Iñigo Terradillos

Euriborraz egun bat bai eta bestea ere bai hitz egiten zen egunak atzean geratu dira. 2005 urtetik 2008ra bitarte etengabe igoz joan zen %5,4ra iritsi arte, eta egun inoizko baxuenean dago, %0,50etik behera. Euriborra (Euro Interbank Offered Rate) euroaren bankuarterko merkatuan finantza erakundeek dirua mailegatzeko erabiltzen duten batez besteko interesa zehazten duen

indizea da. Urtebeterako Euriborra izan ohi da hipoteketarako erabili ohi den indizea, CECA edota IRPHarekin batera. Azken honen behin behineko desagertzea, hain justu, haserre sortu du indize hori dutenengan. Behin betiko desagertzea eta Euriborra aplikatzea eskatzen dute, horrek «murrizte handia ekarriko bailuke hileroko kuotan».

Stop Kaleratzeak plataformatik salatzen dutenez, IRPH indizea «zaharkitua» dago, eta «jada-

nik ez da agertzen interes tipo ofizialen artean». Hori horrela da 2012ko apirilaren 28an indarrean jarri zen Gardentasunerako eta Banketxeetako Bezeroen Babeserako Ministerio Ordenak hipoteken interesen zehaztapenerako indize ofizial berriak jaso zituenetik. Bertan jasotzen ziren indizeen behin betiko desagertzea, ordea, urtebetera egikaritutako zela adierazten zen. Urtebete igaroz, baina, eta Espainiako Gobernuak beste sei hilabetez atzeratu zuen afera, «azter zedin».

Bitarte horretan IRPH kutxen indizea aplikatzen jarraitu dute finantza erakundeek, «hipotekarik gehienetan bere ordezko moduan zehazten den Euribor + %1 aplikatu ordez». Plataformaren arabera, indize horren behin betiko desagertzea «milaka familiarentzat 300 eta 400 euro bitarteko aurrezte ekarriko luke, eta hori, kasu askotan, hipoteka ordaindu ahal izatea eta ez izatearen arteko muga izan daiteke».

Stop Kaleratzeak diotenez, Espainiako Gobernuak dekretu bat sinatzearekin nahikoa litzateke auzia konponbidean jartzeko:

«Ulertzen dugu erabakia oso deserosoa dela eurentzat, herritarrentzat ala finantza erakundeentzat mesedegarri den interes bat zehaztu behar baitute. Ezin dituzte bi alderdiak gustura utzi, baina, hori bai, indize hori zehaztu bitartean finantza erakundeek ari zaio mesede egiten, IRPHa aplikatzen jarraitzen baitute».

Hala, «herritarrentzat gobernatzeko, ausarta izateko eta erabakia behingoz hartzeko» eskatzen diote Espainiako Gobernuari, «bestelako erabakietan ikusi delako nahi dutenean erabakiak bizkorrago hartzeko gai direla».

«Kutxaren gehiengoak»

Espaniako Gobernuari «Kutxa milaka familiaren esfortzuaren kontura aberasten jarraitzea ez ahalbidetzea» eskatzen diote plataformako kideek. Finantza erakunde ugari leudeke IRPHa aplikatzen, baina Kutxa litzateke kasu gehien dituen plataformaren esanetan. «Euriborra ezegonkor eta oso altu zegoen garaian sartu zuten IRPHa, eta Kutxa bezalako finantza erakundeak aprobetxatu egin ziren egoera hartaz,

IRPHa pixka bat altuagoa zen arren, egonkorragoa eta ziurragoa zela esanez. Orain, ordea, Euriborra inoizko baxuenean dagoenean, ez dute hori aplikatu nahi, salatzen dute.

Plataformako kideen ustez, bestalde, «asko dira oraindik IRPH indize horrengatik hipoteka egun ordaintzen dutena baino askoz gutxiago ordaindu beharko luketenak». Horrengatik, euren helburua gaia ahalik eta gehien gizarteratzea da, eta horretarako hamaika ekimen ari dira antolatzen. Bestalde, «presioa areagotu aldera» erakundeek babesaren bila ere joan dira, eta dagoeneko, esaterako, hainbat udaletan onartua dute beraien mozioa. Eskualdeari dagokionez, Tolosan eta Ibarra onartu berri dute.

Kutxabankeak, bitartean, «beti erantzun bera» ematen dietela salatu dute kaltetuek: «Ordezko sartu bitartean oraindik baliozkoa den indizea ari direla aplikatzen diote; era berean, hipoteka norberak sinatzen duela, inork behartu gabe, eta beraiek kontratua horretan dioena betetzera murgatzen direla».

www.inmosalbide.com



SALBIDE
Higienezin zerbitzuak

Aia. Urdaneta Auzoan. 120m²-ko borda (4 gelako etxebizitza) eta 17.500m²-ko terrena. Oso polita. Prezio onean **240.405 euro!**

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegre. 87m². 3 logela, 2 bainugela, terraza (9m²). **282.476€ euro!**

Zarautz. Alde zaharrean. Logela bateko etxebizitza. **150.253 euro!**

Zarautz. Aritzatalde plazan. 3 logelako etxea (87m²) + trastelekua (11m²) + garaje itxia (20m²). 61.562.820 pezeta. Oso prezio onean.

Zarautz. Mitxelena Kalea. 3 logela, 2 bainugela, terraza eta trastelekua. Igogailua eta gasa. **252.425€ euro!**

Zarautz. Zentroan. Emakumezkoen ileapaindegia alokatzen da.

Zarautz. Zigordia kalean. Taberna - jatetxea alokatzen da.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Hauxe Garbitasunak. Garbiketako orokorrak: etxeak, bulegoak, Aurrekontua eskatzeko, deitu konpromisorik gabe 681 15 24 94 telefono zenbakira.

Etxe lanak. Goizetan, etxe lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientziadun emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. 943 696882 / 606 521992

Eva Jimenez, Iker de Dios eta Aitor de Dios ◉ Stop Kaleratzeak plataformako kideak

IRPH kutxen indizea aplikatzen diete euren hipoteketan, eta horren ordezkoa litzatekeen Euribor + %1 aplikatzea eskatzen dute; euren kasuan, hilean, 200 eurotik 300 eurora bitarteko murriztea ekarriko lieke aldaketak.

«Gure kasuaren antzekoak milaka daudenez, Kutxak diru asko galduko luke IRPHa kenduta»

I. Terradillos

Stop Kaleratzeak plataformak dioenez, «etxebizitzaren salerosketaren unetik gorenarean zegoenean Kutxarekin eginiko ia hipoteka guztiek dute IRPH indizea». Aitor de Dios (Tolosa), Iker de Dios (Tolosa), eta Eva Jimenez (Irura) dira horren adibide. 200 eta 300 euro bitarte gutxiago ordaintzen egon beharko liratekeela hilean diote, eta euren eskritoretan neurritz kanpoko hainbat klausula dituztela salatzen dute.

Zein da zuek egun duzuen hipoteka?

Aitor de Dios. 560 euro ordaintzen ditut hilean.

Iker de Dios. Duela bi urte sinatu nituen etxearen eskriturak, eta 568 euro ordaindu ditut hilean, duela gutxi berrikusi, eta 21 euro igo didaten arte.

Eva Jimenez. Nik 800 euro inguru ordaintzen dut.

IRPH kutxen indizea hartzen da kontuan zuen hipotekan. Zergatik indize hori?

A. D. Euriborra asko igotzen ari zenean, eta Kutxako aholkulariak IRPHa gomendatu zidan, zertxobait altuagoa, baina egonkorragoa zela esanez. Asosoreak egokien bezala hori gomendatu zidanez, ba ez nuen zalantzarik izan. Orain, denetarik esango nioke hori aholkatu zidanari.

IRPHaren ordezko indizea aplikatuko balitzazue nola eragingo luke zuen hipotekan?

A. D. IRPHaren ordezko indize moduan Euribor + %1 aplikatuko litzaidakeela zehazten da nire hipotekan, eta hori egingo balitz, 200 euro gutxiago ordaintzen egongo nintzateke hilean.

I. D. Nire kasuan ere, gutxi gorabehera, 400 euro ordaintzen egongo nintzateke. 589 ordaindu ordez. Badira kasuak 300, 400 edota 500



Eva Jimenez, Iker de Dios eta Aitor de Dios. IT.

euro gehiago ere ordaintzen ari direnak. Ezagutzen dut 1.200 euroko hipoteka ordaintzen ari den pertsona bat, eta IRPHaren ordez Euribor + %1 aplikatuko balitzazio indize moduan, 500 euro gutxiago ordaintzen ariko litzateke.

E. J. 200 euro baino gehiago izango litzateke nire kasuan. 200 eta 300 artean, gutxiago ordaindu beharko nuke.

Nola izan zenuten egoera horren berri?

A. D. Facebook bidez Stop Kaleratzeak taldekoen informazioa iritsi zitzaidan. Bertan IRPHaz ari zirela hitz egiten ikusi nuen, eta nire hipotekan hori nuela banekien, galdezka hasi nintzen, eta orduan konturatu nintzen gertatzen zitzaidanaz. Lehenengo erretrakzioa asaldatu eta haserretzeko izan zen, eta gero, nire kasu berean zeudenekin biltzen eta ekimenetan parte hartzen hasi nintzen.

I. D. Euriborra jaitsi egin zen, baina, niri hileroko kuota igo egin zidaten. Harriduraz hartu nuen, eta nire anaiarekin hitz egitean konturatu nintzen IRPHarenatik gertatu zitzaidalda hori.

E. J. Orain gutxi izan dut honen guztiaren berri, eta erabat harrituta geratu naiz. Gainera, nire kasuan, banandu egin naiz, eta etxea biona da, baina etxearen beste zatia erosi eta etxe osoa nire izenean jarri nahi izan dut, eta Kutxak ez dit utzi baldintzak ez nituela betetzen argudiatuta. Hori bai, Euriborra aplikatuko balidate baldintza horien barruan egongo nintzateke, eta orduan egin ahalgo nuke. Beraz, nabarmen ari zait eragiten.

Kasu askotan Euribor + %1 hori aplikatzeak hilabete bukaerara iristea edo ez iristea ere esan nahi duela adierazi duzue.

A. D. Ni justu-justu iristen naiz hilabete bukaerara. 200 euro gutxia-

go ordainduko banu hipoteka agian zerbait aurreztera ere iritsiko nintzateke, beraz, aldea handia da. Jende asko etxea galtzera ere iritsi da arrazoi honengatik, izan ere, Euriborra aplikatuta ordaindu ahalgo lukete hipoteka.

Zer gertatzen da hipoteka ordaintzeko zailtasunak dituzun unera iristen zarenean?

A. D. Neurritz kanpoko klausula horietako bat aplikatzen dizute. Nire kasuan, hilabete batean ordainduko ez banu, legeak onartzen duen gehienezko %12ko atzerapenezko plusa ordaindu ordez, %17,250 ordaindu beharko nuke. Hori hipoteka Kutxan dugun guztiok dugu, ez soilik IRPH indizea dugunok. Eta, badira %21a ere dutenak. Gehiegizkoa da. Behin horretan sartzen bazara, oso zaila izaten da irtetea, guttia pilatzen baitzaizu.

Neurritz kanpoko klausula litzateke hori?

A. D. Bai. Baina, ez da bakarra. Nire kasuan, plataformako abokatuek nire etxearen eskriturak aztertu ostean, neurritz kanpoko hamaika klausula ditudala esan dit.

Horrekin guztiarekin zuen finantza erakundera joan al zarete? Zein izan da erantzuna?

E. J. IRPHarena jakitean joan nintzen Kutxara, eta esan zidaten ezin dela kendu IRPHa eta Euriborra aplikatu.

A. D. Hipoteka guk firmatu dugula erantzuten dizu Kutxak, eta urri-arte arte itxaroteko, orduan erabakiko dela zein indize aplikatu gure kasuan. Baina, nik ez dut sinesten, urria iritsiko da, eta ziur beste luzapen bat egiten dute. Legea sartu zenetik ez dute eskriturarik egiten IRPHarekin, baina guk hori ordaintzen jarraitzen dugu. Adarra jotzen ari zaizkigu.

I. D. Gainera, has zaitez abokatuekin eta epaitegira joaten. Batetik, diru asko behar duzu hori egiteko, eta bestetik, horrelako erraldi baten aurka irabaztea oso zaila da. Kontua da diru asko dagoe la jokoan, gure kasuaren modukoak milaka baitaude. Kutxak diru asko galduko luke honekin guztiarekin.

Zein erantzun ari zarete ematen plataformatik?

A. D. Eskritoretan neurritz kanpoko klausulak dituztenak bildu, eta guztiak inojoango gara euren gana. Bestalde, presioa egiteko hamaika ekimen ari gara burutzen, eta udaletan mozioak ari gara sartzen. Gure beste helburua gaia gizarteratzea da, herri-tar guztiek ezagutzeko, eta sufritzen ari garena jakiteko, eta oraindik konturatu gabe daudenak ohartarazteko.

◉ tolosaldean@hitza.info




Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!

XVII. HITZA Udako argazki lehiaketa

Sari mundialak!





Ikasturte honetan Tolosako kultur etxeko tailerretan egindako lanak Aranburu jauregian daude ikusgai, larunbata bitartean.

Herritarren arte lanak

Eneritz Maiz Tolosa

Tolosako kultur etxean, urtero-urtero, tailer ezberdinak antolatzen dituzte. Pintura, zermika, argazkigintza, ehoziariak edota eskulanak egiten dituzte. Urtean zehar, gizon eta emakumeek egindako lan hauek jendarean jarri ohi dituzte. Ehun pertsonatik gora aritzen dira kultur etxean, eta beraien eskuakin lan-

dutako arte lanak dira. Estilo, kolore eta tamaina guztietako obrak dira.

San Joan jaien aurretik, Tolosako Aranburu jauregian jarri ziztuzten, eta larunbata bitartean bisita egiteko aukera izango da. Gaur eta bihar, 17:30etik 20:30era egongo da zabalik. Lan hauez gain, ordea, Tolosako Garaguneko artisten lanak ere bertan daude. Beraz, azken orduak baino ez dira geratzen ikusi ahal izateko.



Mauka berria GAURKO ESKAINTZA


Zeharkatu itsasoa hegan, adrenalinaz blai, prezio ezin hobean.



Prezioa 39€

Redymar
Santiago auzoa, 10
Zumaiola 20750 GIPUZKOA
Tel.: 943-14 31 76
redymar@redymar.com
www.redymar.com

www.mauka.eu **berria** taldea



Tolosako kultur etxeko tailerretan aritu direnen era guztietako lanak bisita daitezke. ITZEA URKIZU

igandean, organikoarekin hasiko dugun bilketa sistemaren ordutegia:

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea

EGUNERO: pixoihalak eta konpresak
(larunbatetan izan ezik)

www.tolosakidea.org

HONDAKINAK ATERATZEKO ORDUTEGIA
20:00-6:00 / 21:00-6:00
NEQUAN UOAN

Zozko eta zerbait

Edozein duda argitzeko:

Informazio bulegoa
AMASA VILLABONA
GPS

Helbidea:
Kale Nagusia, 29
Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera,
11:00-13:00 eta 18:00- 20:00

ANIMO ETA
ESKERRIK ASKO
HERRITARREI!

AMASA-VILLABONA Villabonako Udala

Rogainea orientazio proba jokatu da irailaren 7an

Mikel Iraola Abaltzisketa

Irailaren 7an Gipuzkoako I. Rogaine orientazio proba jokatu da Lizarrustin. Irungo Mendizaleak Orientazio Sailak eta Bizibiziki enpresak antolatutako ekimen hau Txindokiko Itzala natur guneak antolatutako Turismo Aktibo Jasangarriaren I. Azokaren barnean

kokatzen da. Probak, sei orduko iraupena izango du batez beste, eta federatuek nahiz herritarrek parte hartu ahal izango dute, bitik bosterako pertsonaz osatutako taldeak eratuz. Hori bai, mendian orientaziorako gaitasuna izatea, estrategia eta fisiko ona izatea beharrezkoak dira proban parte hartu ahal izateko.

Dena den, modalitate honetan esperientzia asko ez duten kirolarientzat, trebetasuna hartzeko orientazio tailer bat antolatuko dute. Hau irailaren 1ean egingo da Larraitzen.

Izena emateko edo informazio gehiagorako blog bat ireki dute: <http://orientimos.blogspot.com.es>.
 ● tolosaldean@hitza.info



Antolatzaileak I. Rogainea orientazio probaren aurkezpenean. JONE AMONARRIZ

→ Laburrak

Peroteko langileen azken kontzentrazioa, bihar

TOLOSA › Uztailaren 9an Peroteren inguruko epaiketa egingo da Bilbon, EAEko Auzitegi Gorenean. Hori dela eta, larunbatero egin ohi duten moduan, langileek kontzentrazioa egingo dute Tolosako Trianguloa plazan euren egoera zaila salatzeko. Epaiketa aurreko azken kontzentrazioa izango da. Goizeko 11:00etan hasiko dira, eta ordu erdi iraungo du.

Alaitz Imazek irabazi du Euskal Herriko Segala Liga

HERNIALDE › Alaitz Imazek irabazi du Euskal Herriko emakumeen Segala Liga. Hernialdetarra sailkapen nagusiko lehen postuan iritsi zen azken probara, baina aurkariei ez zien aukerarik eman, nagusi izan baitzen hor ere. Bigarren Astondoa izan zen, eta hirugarren, pasa den urteko txapelduna, Etxaburua. Gizonetakoetan, Joxe Gabirondo gazteluarra izan zen garaila.



Gabirondo eta Imaz. HITZA

Irurako jai batzordearen bilera astelehenean

IRURA › Irurako jai batzordeak bilera egingo du astelehenean, 19:00etan udaletxeko pleno aretoan aurtengo San Migelak antolatzeko. Batzar garrantzitsua izango da, bertan ordutegi, egun eta ekitaldiak zehaztuko baitira.

Kutxabank Maileguak

uda honetan

ondo pasa
auto berri
bidaiatzean

Egizu gogoko duzuna
Kutxabank Maileguak

Autorako mailegua

Operralditxea OPARI

Asteburuko txangoa OPARI 2 laguntzarai eta 40 Eko diru-ortela, nahiz duzunerako.

Aukeratu orain udako txangoa!

OPERRALDITXEA OPARI

Posta elektroniko

Alokairuan jarriko dituzte Tolosako Arrillaga plazako aparkalekuak

Alokairurako izen ematea datorren astelehenean irekiko dute, eta irailaren 13ra bitarte zabalik izango da

ITZEA URKIZU

Tolosako Udalak alokairuan jarriko ditu Larramendi auzoko 81 aparkaleku, gehienez ere 3 urtera luzatu ahal izango diren kontratuak. Izen ematea hilaren 8an zabalduko dute, irailaren 13ra bitarte.

Ibai Iriarte alkateak, aparkalekuak alokairuan eskaintzearena «apustu ausarta» dela nabarmendu du, eta beharrezkotzat jo du erabakia. Izan ere, orain arte kontzesio kontratuekin eskaini izan dira Tolosan aparkalekuak, eta egoera ekonomikoak bultzatu du udala, erabaki hau hartzera; esaterako, Berazubi auzoan aparkalekuak eraikitzeke egindako eskaintzan, 17 herritarrek bakarrik egin zuten eskaera, eta 31 behar zituzten gutxienez: «Egungo egoera ekonomikoa eta lan kontratuen ezegonkortasuna ikusita, eskaintza malguagoak behar dira. Gainera, udalak jada ordainduta dituen azpiegiturak hutsik egotea ezinezkoa da».

Horrela, beraz, Arrillaga plazako aparkalekuen alokairu kontratuak urtebeterako sinatuko dituzte, hasiera batean; gero, urtez urte luzatu ahal izango dira, baina gehienez ere hiru urtez mantendu ahal izango dira kontratuak.

Prezioari dagokionez, berriz, aparkalekuak hartzen dituztenek urtean 480 euro ordaindu beharko dute alokairuagatik. Kopuru hau ordaintzeko bi bide eskainiko dizkie udalak herritarrei: batetik, 480 euroak aldi batean ordaindu ahal izango dira, eta bestela, ordainketa zatikatua hautatu ahal izango da, 270 euroko bi ordainketa eginez.

Aitziber Lazkanok eta Ibai Iriartek nabarmendu dutenez, bi irizpide nagusi erabili dituzte alokairuen prezioak zehazterakoan: «Udalak ez du etekinik aterako aparkalekuen alokairuekin, eta beraz, gastuak ordaintzeko adinako prezioa zehaztu dugu, batetik. Horrekin batera, kontzesioan eskaini genituen aldameneko aparkalekuen prezioekin alderatu, eta bien arteko oreka bat ere bilatu nahi izan dugu».

Lurpeko aparkalekuen eskaintza malguagotu duten arren, Iriartek argi utzi nahi izan du, Tolosako Udalak ziurtatu egin nahi duela benetan dagoen eskaria.



Aitziber Lazkano eta Ibai Iriarte, agerraldian. ITZEA URKIZU

Izena ematerakoan, beraz, eta beste zenbait kasutan egin duten bezala, eskatzaileek 100 euro aurreratu beharko dituzte berme moduan.

Halaber, gutxieneko eskaera kopuru bat zehaztu dute egitasmoa gauzatzeko: 52 eskaera baino gutxiago jasotzen badituzte, proiektuak ez du aurrera jarraituko. Aldiz, Tolosako Udalak 81 eskaera

baino gehiago jasotzen baditu, zozketa bidez banatuko dituzte aparkalekuak.

Lehentasunak zehaztuta

Arrillaga plazako aparkalekuak esleitzeko zozketa egin behar izanez gero, alokairua arautzen duen baldintza pleguan zehazturiko lehentasunen ordena erabiliko dute.

Horrela, lehentasuna izango dute, hasteko, Arramele-Arkaute nahiz Santa Luzia eremuan bizi diren herritarrek. Bigarren postuan Alde Zaharreko eta Gorosabeleko biztanleak leudeke, eta hirugarrenean, Tolosako gainerako egoiliarak. Era berean, Tolosan lan egiten dutenek nahiz eskualdean bizi direnek ere izango dute aukerarik aparkalekuak eskuratzeko.

Azkenik, Arrillaga plazako aparkalekuen eskaera egin ahal izateko, zenbait baldintza bete beharko dituzte herritarrek: batetik, ibilgailuen jabeak izan beharko dute, eta gidabaimena dutela ere ziurtatu beharko dute. Era berean, Tolosan bizi diren eskatzaileek, nahiz jarduera komertzial, industrial edo profesionalen bat Tolosan egiten dutenek ere ziurtatu egin beharko dute.

Izena emateko, Tolosako udal txeko arreta zerbitzuan bete beharko da inprimakia, Udaten. Bestela, www.tolosakoudala.net atarian ere eskuratu ahal izango da izen emate orria.

Informazio gehiago eskuratzeko, Tolosako Udaleko etxebizitza zerbitzura jo daiteke, 943 69 74 91era deituz, eta etxebizitza@tolosakoudala.net era idatziz.

↓ Alokairuen prezioa

480

■ **480 euro.** Aparkalekuen ordainketa bi zatitan egiteko aukera ere eskainiko die udalak, hala nahi dutenei.

Tolosaldeko eskularen azoka BOX.An

‘Made in Tolosa’ izenburupean ospatuko dute azoka, eta postua jartzeko eskaera orria bete beharko da

I. Urkizu

Eskuz egindako gauzak sortzen dituzten tolosarrei nahiz Tolosaldeko biztanleei erakusleihotzat balioko die, BOX.A arte elkarrekin datorren uztailaren 20rako antolatutako *Made in Tolosa* azoka bereziak.

San Esteban auzoko egoitza egokitu zuten zuzen geroztik, BOX.Ak antolatuko duen hirugarren azoka berezia izango da hilaren 20koa, eta artisauei dei egin

diete, bertan postua jartzeko: «Eskuz egindako lanak egiten dituzten guztiei zabalitzen diegu gonbidapena: artea, artisautza, gauza bitxiak, janaria, osagarriak...».

Hilaren 20ko azoka arratsalde zabalduko dute, 16:00etatik 22:00etara bitarte, eta aurrerago egitarauaren xehetasunak ezaugaraziko dituzte BOX.A arte elkarteko kideek. *Made in Tolosa* antolatutako ahal izateko, ordea, postuak beharko dituzte, eta eskularen egiten dituztenek doako izenematea izango dute azoka honetan.

Horretarako, mezua bidali behar da gu@boxagara.comera, gaitzat *Made in Tolosa* jarritz. Jarraian nahitaez eskaera orria bete beharko du artisaubakoiak, postua jarri ahal izateko.

Irudia



TOLOSALDEA, ESKOLA JASANGARRIA

Tolosaldea Goi mailako lanbide heziketa institutuak *Eskola Jasangarria* ziurtagiria jaso berri du. Eskola Agenda 21 programaren barruan, auto-baluzioko galdetegia aztertu diete, eta baita

ikastetxera bisita egin ere. Horrela, Ingurugelak eta Hezkuntza Berritatzeko eta Natura Ingurumen Plangintzarako zuzendaritzak, ikastetxeak egindako lana «txalotu» duela azaldu dute. HITZA

Bildu: «Maniobra politikoa gaizki atera zaio EAJri galdeketekin»

Atez atekoaren inguruan egindako galdeketak ez dira eredugarriak izan Bildurentzat

Eneritz Maiz

Tolosaldeko Bilduk atez atekoaren inguruko galdeketen balantzea egin du. Lehenik eta behin, herri kontsultaren garrantzia azpimarratu nahi izan dute Hasier de los Rios eta Eider Imaz Bilduko ordezkariak, «oso tresna serioa» dela nabarmenduz: «Herri borondatearen isla den neurrian, errespetu bat zor zaio beti». EAJri tresna hori desitxuratzea leporatu die: «Egun hauetan, tresna demokratiko hau arma politiko bezala erabiltzen ikusi dugu EAJ. Hondakinen arazoa konpontzeko baino, gehiago korapilatzeke erabili nahi izan da galdeketa hau. Edo-

zein kasutan, argi geratu den gauza bakarra da, EAJk herri galdeketa hauekin zuen helburua ez duela lortu. Bere maniobra politikoa gaizki atera zaio».

Herriarren gehiengoak atez atekoari aukera bat eman nahi dio Bilduren hitzetan. Ondorio horretara iristeko, azken aste hauetan hondakinen gaian izandako ekimen guztiak kontuan hartu dituztela diote Bildutik: «Udalek atez atekoa definitzeko helburuarekin egindako parte hartze prozesuak; Tolosaldea Txukunek antolatutako herri galdeketak; ezarpen fasearen lehen egunak...». Herri galdekete-tako emaitzak kontuan hartu behar direla esan dute Bildutik, «7.000 bizilagunetik ia 2.400 bosgarren edukiontzia alde agertu direlako». Hala eta guztiz ere, Amasa-Villabonan, Irurran eta Anoetan atez atekoa probatzeko nahia «zabaldua» dagoela ikusten dute Bilduko ordezkariak.



Tolosaldeko Bilduko ordezkariak, Hasier de los Rios eta Eider Imaz atzo prentsaurrekoan. HITZA

Herri galdeketak egiteko erabili duten formula berarekin ere ez dira ados agertu Asier de los Rios eta Eider Imaz: «EAJk eta Tolosaldea Txukunek herri kontsultak egiteko erabili duten formula honekin kritikoak azaldu ginen lehen unetik. Ez dugu ulertzen nola bere burua demokratikotzat jotzen duen alderdi horrek, demokraziaren urrezko araua den 'persona bat, boto bat' legea zein lotsagabeki apurtu duen». Bilduko ordezkarien ustez, EAJk boto delegatua kontsultaren emaitzak «gizentzeko» elementu bezala erabili du, «eta hala eta guztiz ere, ez dute bere helburua bete».

Tolosaldeko Bilduk ikuskatzailerekin gertatu zena ere salatu nahi izan du: «EAJren ordezkari-

ek ez zieten hautes-ekoletan sartzen utzi ikuskatzaile lanak egitera joan ziren herritarrei. Argi zegoen ez zutela lekukorik nahi. Fede onez aritzen ez denak ez du lekukorik nahi izaten». EAJren «apustua», Bilduren ustez, «datu faltsuekin jokatzeko eta atez atekoaren aurkako manipulazio mediatikoa izan da». Hala eta guztiz ere, «medio publiko eta pribatu nagusiak euren alde izanda ere, beraien helburua ez dutela lortu» esan dute Bilduko kideek. Hauen ustez, «intoxikazio kampa-
painak porrot egin du».

Koalizio abertzaleko ordezkariak gainontzeko alderdi guztiei deialdia luzatu diete: «Gezurra-
ren garaiekin bukatzeko eskatzen diegu. Debate alderdikoiak

alde batera utzi, eta hondakinek sortzen duten arazoa zein sortu dezaketena konpontzeko garaiak dira. Bide horretan, Bilduren laguntza aurkituko dute».

Ez hondakinekin bakarrik

Parte hartzea bultzatzearen alde agertu dira Tolosaldeko Bilduko ordezkariak, baina «EAJk eta Tolosaldea Txukunek erabili duten herri kontsultaren ereduak iruzurrari bidea irekitzen diola» gaineratu dute, eta ondorioz, hori ez dela euren eredu. Parte hartzearen alde daudela nabarmendu dute Bildutik, baina ez hondakinekin gairekin bakarrik: «Legealdiaren bi urte hauetan hori demostratu dugu, eta jarraituko dugu demostratzen».

Aldabatik Murumendira irteera egingo dute igandean

Auzo elkarteak antolatu du txangoa; irteera ordua 08:30ean jarri dute plazan, ondoren bazkaria egingo dute

Erredakzioa Aldaba

Aldabako Auzo Elkarteak mendi irteera antolatu du hilaren 7an, igandean. Aldabatik irten eta Murumendira joango dira mendi-

zaleak. 08:30ean jarri dute hitzordua plazan, eta joan-etorria egingo dutela azaldu dute auzo elkartetik. Murumendi mendilerroa Tolosa eta Albiztur udalerrietan kokatzen da, eta mendi martxa goizean zehar egingo dutela azaldu dute auzo elkartetik, izan ere, mendi buelta egin ostean, Aldaban bazkaria egingo dute, hain zuzen ere, frontoian.

Elkarteko kideek mendira errekin joan nahi duen oro gonbidatu dute irteerara.



Aldabako Auzo Elkarteak antolatuta, iaz ere, mendi buelta egin zuten auzotarrek. HITZA

📍 Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

-ESKER ONAK-

MERTXE GALDOS IDIAZABAL

(Auzo Anonizazioaren laguntza)

- Dolan bego -

Familia eskerrak eman nahi dizkizue doluminak eman eta haren arimaren aldeko elizkizunetara joan zareten guztiei, eta jakinarazten dizurte haren ordimeneko meza IGANDEAN, uztailak 7, izango dela, eguerdiko HAMABETAN, Gabi-
neko parrokiaren elizan.

LASARTEN, 2013ko uztailaren 5ean



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

GAUR

JAIAK

- **Tolosa.** Iurreamendi auzoan suziria botako dute, eta hau-
rrentzako entzierroa eta jolasak
izango dira. Ondoren, Larrain
dantza eta auzo afaria egingo
dituzte.
- **Tolosa.** Amarotz auzoan,
16:00etan, suziria eta buruhan-
diak izango dira. 16:30ean, hau-
rrentzako jolasak festagunean.
18:00etan, Beti Gazteak lokale-
an karta-jokoen finala: eskoba,
seiko, txintxon eta punttua.
18:30ean, txokolate jatea, eta

Circortito taldearen *La risa es
bella* antzerki emanaldia.

20:00etan, Tolosako Musika
Bandaren kontzertua izango da,
eta 20:30ean, Triki poteoa egin-
go dute. 21:30ean, Mozorro
gaua. Auzo afaria eta DJ Bull ari-
ko da musika jartzen goizaldera
arte.

KIROLAK

- **Albiztur.** Hitza Pilota Txapel-
ketako partidak jokatuko dituz-
te Albizturgo pilotalekuan, arra-
tsaldean. Alebinen mailako lau
partida ikusteko aukera izango
da.

Agurrak



AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● agurrak

Urte askoan!

Zorionak soroko txikienerari!
Muxu asko, meriendaren zain
gaude!

Irudia Tolosa



GEHIENENKO ABIADURA

Tolosako Udalak herrigunean 30 kilometro orduko gehienerako abia-
dura jartzeko erabakia hartu zuen, eta hori dela eta, aste honetan,
herriguneko errepideetan margotze lanak egin dituzte. Honela,
arautua geratu da eta autoek ezingo dute 30km/h abiadura gaindi-
tu. Segurtasunaz gain, Tolosa jasangarriagoa egin nahi du udalak,
eta CO2 isurketak murriztu, eta auto eta bizikletek partekatuko di-
tuzten bideetan segurtasuna bermatuko ditu. E.MAIZ

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Bengoe-
txea, E. Kale Nagusia, 7. Tlf: 943
670648. Gauekoa: Azpiroz, L.
Amarotz, 9. Tlf: 943 65 51 18.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga
kalea, 7. Telefonoa: 112.

UZTAILAK 6, BIHAR

- **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa:
Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga
kalea, 7. Telefonoa: 112.

UZTAILAK 7, ETZI

- **Tolosa.** Egunekoa eta gaue-
koa: Morant, R. Zaballarreta lora-
tegiak, 1. Telf: 943 67 38 49.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga
kalea, 7. Telefonoa: 112.

UZTAILAK 8, ETZIDAMU

- **Tolosa.** Egunekoa eta gaue-
koa: Bronte, C. Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Ara-
lar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSALDEA

**LANBIDE HEZIKETA
INSTITUTUA**

Eleanitza



**ziklo guztiak
euskaraz**

MATRIKULA EPEA: Uztailaren 8tik 12ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mekanizazioa
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Informatika
- Automatizazio eta Robotika industrialia
- Administrazio eta Finantzak
- Metal eraikuntzak